

Errege Magoei

LUIS BANDRES UNANUE

[GIPUZKOAKO DIPUTAZIOKO GIZARTEKINTZA ARDURADUNA]

Urteak joan, urteak etorri Jainkoa dadila gurekin». Honelako esaldi batez agurtzen zen orain dela gutxi arte gure artean urteberriko jaietan. Horregatik, urte berriari zer eskatuko niokeen idazteko eskatu zidatenean, lehenengo ideia horixe izan zen, «Jainkoa gurekin izan dadila».

Baina, horrela esanda askorentzat ez da oso argigarri izango. Horregatik Jainkoa aipatzerakoan bere barnean aurkitu nahi dudana adierazi beharko dut. Dena dela, eta puntuak banan bana azaldu aurretik beste zerbait esan beharko dut: guretzat, hau da, kristauek doktrinaren barnean heziak izan garenontzat, Jainko hitzak pentsa dezakegun gauza positibo guztiak metatzen ditu. Hala ere, oraingoz utz dezagun zerua eta jaitsi gaitezen pixka bat behintzat lurrera.

Eta behin lurrean egonik, nire desioak azaltzeko nik orain gehien jorratzen ditudan hiru arloetan sartuko naiz eta Errege Magoei eskaera bana egingo diet.

Hasteko Meltxorri. Azkeneko urte hauetan Gipuzkoan Diputazioako Gizartekintzako arduraduna izan naizenez gero; gertu-gertuan bizi dudana arlo bat gizartean dauden behartsuenen premiena da. Gure gizartean jendea, batez beste aberatsa denez gero, askotan ez da konturatzen edo, hobeto esanda, ez du konturatu nahi, aldamenen premiak eta beharrak dituztenak ere badaudela. Eta, jakina, beharizan horiei aurre egiteko baliabide asko behar izaten da. Administrazioek (hobeto, herritarrek Administrazioen bidez) dirua jartzen dute baina, hala ere, beharrak baliabideak baino handiagoak dira. Horregatik, behar-beharrezkoa dugu solidaridadea. Baina, solidaridadea bakoitzarengandik hasten da, hau da, nik posibilitatea badaukatzat ez diot Administrazioari ezer eskatu behar, bai baitakit niri ematen didatena beharbada nik baino premia handiagoa daukan bati kentzen diodala.

Guregandik hasi eta besteei laguntzeko prest bagaude, zer esanik ez, askoz hobeto.

Arlo honetan topatzen dugun beste arazo gordin-gordina Lanik ezarena da. Askotan horrek ondorio gisa beste mila arazo ekartzen ditu, izan ere, denok dakigun bezala gizarteratzeko dagoen bide nagusia, bakarra ez bada, lanarena da; hortik datoz lan ezak diruaren premiaz gain dakartzen frustazioak, gure burua baztertzeko joera, etxeko giro txarra eta abar. Lan eza, beraz, beste mila premia eta arazoren iturburu bihurtzen da.

Horregatik, Meltxor Erregeari 1999rako bihotzez honako hau eskatuko nioke: gure artean (eta, zergatik ez? Mundu guztian) solidaridadea handitzea eta lanik eza ezabatzea.

Goazen orain Gasparrekin. Dagokidan beste arlo bat politikarena da. Ia betidanik alde edo moldez euskal politikaren inguruan murgilduta ibilia naiz. Geroago EAJ-PNVn afiliaturik zenbait kargu politiko ere izan ditut. Gaur egun, Alderdiak izendaturik Gipuzkoako Diputazioan Gizartekintzako arduraduna naiz. Beraz, politika oso bertatik ezagutzen eta bizitzen dudana zerbait da. Baina, eskaera egin aurretik burutazio bat edo beste egitea komenigarri delakoan nago. Nire ideiegatik indarkeriaren aurka izan naiz beti eta gure kasuan Euskadin azken urte hauetan jasan dugun indarkeria moralki arbuiatzeaz gain gure helburuei kaltea baino ez ziela egiten konbentziturik egon naiz eta nago; biktimei eta beren ingurukoei mina egiteaz gainera indarra erabiltzen dutenei ere kaltea ekarri ohi die beti indarkeriak; horrek guztiak gure gizartean nolabaitzako pitzadura sortarazi du eta, ondorioz, batek baino gehiagok bere hasierako euskaltzetasuna moteldu edo baztertu du. Zenbat indar, zenbat gogo ez ote dugu galdu indarkeria anker horren ondorioz? Non egongo ginatke baldin eta indar eta gogo horiek, nork bere ikuspegitik, noski, erabili izan

bagenitu benetako Herrigintzan?. Horregatik, irailaren 16an ETak bere su-etena iragarri zuenean izugarritzko poza hartu nuen eta, nik bezala, euskaldun gehienek, nire iritziz. Orain, gure aurrean lan eskerga daukagu: herritarren artean, gizartean, ireki den pitzadura ixtea, indarra alde batera utzirik arazoak hitz eginez konpontzen ohitzea... Gaspar Erregeari 1999. urterako eskaera bat egin nahi diot, hau da, hasitako su-etan hori betiko bihurtzea.

Azkenik, *last but not least* (hau da, azken baina ez txikiena) Baltasar dator eta berari kulturaren eta hezkuntzaren alorrean dudana eskaera luzatu nahi diot. Aurreko puntuan esandakoa lortzeko, ezpairik gabe, hezkuntza eta kultura areagotu eta sakondu behar ditugu. Hori da bide nagusia. Asko hobetu dugu azken urte honetan, baina oraindik badugu zeregin franko. Gure hizkuntzarekin hasteko, esaterako, hezkuntzan D eredu, hots, irakaskuntza euskaraz ematen dena, gaur egun nagusi dela irakurtzen dugu nonahi; hala ere, gizarte arruntan gatzetara jaun eta jabe denik inork ez du zalantzan jarriko. Edo, Unibertsitatearen arloan sartuta -ni Euskal Herriko Unibertsitateaz ariko naiz,-, noiz baztertuko ditugu gure interes gremialak gizarteak benetan behar dituen ikasketak emateko eta garatzeko? Hau da, noiz egokituko ditugu bere emaitzak hirugarren milaurteko beharrei? Edo ...

Beraz, eta ez luzatzeagatik, Baltasar Erregeari gure artean (eta denon artean, zer esanik ez!) hezkuntza eta kultura areagotzea eskatu nahi diot.

Jakin badakit, nola ez, geroa zaila izango dela, eta benetako Erregeak gurasoak direla, noski, baina askotan esan dugun bezala «eskatzea libre da»; horra hor, bada, nik Errege Magoei idatziko diedan eskutitzaren mamia ... Ah! Eta denok batera ekiten badiogu, bakoitzak bere aldetik berea jartzen badu, ziur naiz Errege Magoen miraria gertatuko dela. Zu ez ala?

hirusta ...

JASONE OSORO

Hauts magikoak

Gurera biak etorri izan dira beti: Olentzero eta Erregeak. Baina ilusio gehien egiten zidana Meltxor, Gaspar eta Baltasar Elgoibarko kaleak zaldi gaineen zeharkatzen ikustea izaten zen. Gauean, oinetako garbiak sukaldeko



leihoaren azpian laga ostean, goizo erretiratzen nintzen; biharamunen, berriz, urduritasuna egunsentia-rekin batera sartzen zen ahizparen eta bion logelan. Urtarrilaren 6a izaten zen, gaurkoa bezalako egun magikoa. Gerora, koskortu nintzenean, Kabalgatan parte hartzea ere egokitu zitzaidan urte batean. Hemen ikusi nituen niretzat magoak ziren erregeak gezurretako bizar zuriak jartzen eta aurpegia beltzez margotzen. Hura desilusioa! Magiaren xarma desagertu egin zen trukua zein zen jakin nuenean.

Urte zaharra ere joan zaigu, nire kasuan gogoz kontra bada ere. Hain ekologista den gizarte honetan, urte onak birziklatzeko aukera egon beharko litzateke. Besterik ezean, 98a beste pare bat hilabetez luzatzeko eskatuko nien erregeei, baina, dagoeneko, 99ko egutegia sukaldeko hormari itsatsia ikusi dut. Beraz, guk geuk izan beharko dugu mundu honetako ilusionistak. Nik baditut urte zaharrari harrapatutako hauts magiko batzuk, ondo astindu eta egoki zabalduz gero ilusio bihurtu daitezkeenak. Hautsak tintaz nahastu ditut eta honako esaldi hau ageri da: «Ez ezazu zure bizitza amestu. Bizi ezazu zure ametsa». Esaldia ez da nirea baina hautsak bai, eta zuoi debalde eskaintzeko ilusioa neukan.

...hemeroteca

EL MARIO VASCI

Ez da hori

[MARIO ONAINDIA]

Sistema demokratikoa HBrentzat irensteko modukoa izateko, koalizioak gaingiduta izan behar ditu presoen existentziaren oztipoa, *lurraldetasuna* deritzotena, hau da, Euskadiren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean nola baitaiteko harreman mota

bat izatea, eta polizi erduaren aldaketa egokia, Jarraiko jendearen jarrera, ahal bada, oraindik gehiago deslegitimatzeko.

Eta HBko zuzendaritza berriak egin duen guztia ez doa ildo horretatik, ez ditu arazo zehatzak konpontzen, eta ez du aurrera egiten errealtatearen transformazioan bere botoen eta ordezkariaren in-darraz baliatuta; alderantziz baizik. Eta horrek kezkatzen nau.

Honezkero jakin beharko zuen tranpa bat dela Lizarrako akordioa, eta arazoak konpontzeko oztoporik handiena. PPK baitu kartzelen arazoa konpontzeko giltza, eta ez EAK. Sozialistek baitute, orobat, Nafarroaren arazoa konpontzeko, eta ez EAJk.

Indar horien aurka oildartzeko politikarekin, ez du areagotu demokrazia bere egiteko HBren asmo onetan PPK izan dezakeen konfiantza (...)



LE TRAIT D'ITTURRIA / SUD OUEST